



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko abenduaren 6ko bilkura

Bi mila eta hogeita bigarren urtean, abenduaren seian, zazpietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, HEGUY Antton

Bilkurako idazkari izendatua izan da : IDIART Claudine

Deialdiaren eguna : 2022ko abenduaren 2a

Afitzatze eguna : 2022ko abenduaren 2a

1. ERABAKIA: AURREKONTU NAGUSIA, HARTZEKOEN BAZTERTZEA

(7.10 nomenklatura)

Auzapezak herri biltzarkideei jakinarazi die, bertako hainbat mozkinen eskuratzeko urraspide guziak eginik ere, herriko hartzaile jaunak herriak eskuratuko ez dituen hartzekoen egoeraren berri eman diola. Herri Biltzarrari dagokio hartzeko horien baztertzea erabakitzea:

Hartzekoak honako taulan zerrendatuak dira:

Gaia	Erreferentziak	Kontu ekitaldia	Zenbatekoa
Jantokia	T-1368	2020	28.00 €
Eskola ondoko bilgunea	T-230 R-12 A-93	2017	3.65 €
Eskola ondoko bilgunea	T-235 R-14 A-110	2017	10.00 €
Ludoteka (kaltetu diren jokoak)	T-262	2017	108.00 €
Alokairua	T-1555	2022	99.00 €
OROTARA			248.65 €

Ondorioz, kideei eskatu die gai honi buruzko erabakia hartzea.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta luzaz eztabaidaturik, Herri Biltzarrak,

- **ERABAKI DU**, 248.65 €ko hartzekoak baztertzea.

- **ZEHAZTU DU**, herriaren uneko aurrekontuko funtzionamendu gastuetan (6541 kontua) horretarako kredituak badirela.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko abenduaren 6an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2022/12/12an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/12/12an.